Lan-eskaintzen erregistroa 2019ko uztailean

ERREGISTRATUTAKO LAN-ESKAINTZA KOPURUA

2019ko uztailean Euskal Autonomia Erkidegoko enplegu-bulegoetan erregistratutako lan-eskaintzen kopurua 1.288 izan da, ekainean baino 309 gutxiago eta joan den urteko uztailean baino 109 gehiago. Egunean bataz bestez 58 eskaintza erregistratu dira, aurreko hilean baino 20 eskaintza gutxiago egunean.

• LURRALDE HISTORIKOAK

Kudeaketako Administrazio Unitatearen (KAU) lurralde historikoari erreparatuz, 2019ko uztailean 185 lan-eskaintza erregistratu dira Araban, 568 Gipuzkoan eta 535 Bizkaian. Lan-eskaintzen % 44,1 Gipuzkoako KAUetan erregistratu dira, % 41,5 Bizkaian eta % 14,4 Araban.



Aurreko hilabetearekin alderatuz, Araban % 7,6 hazi dira eskaintzak (13 eskaintza gehiago), Gipuzkoan % 14,2 murriztu dira (94 eskaintza gutxiago) eta Bizkaian 228tan murriztu da eskaintza kopurua %29,9ko jaitsiera).

Aurreko urteko hilabete berberarekin alderatuz, Araban 18 eskaintza gutxiago erregistratu dira, % 8,9ko murrizketa; Gipuzkoan eskaintza kopurua 98tan hazi da, % 20,8ko hazkundea, eta azkenik, Bizkaian 29 eskaintza gehiago izan dira, % 5,7ko hazkundea.

• LAN-ESKAINTZAKO LANBIDEA

Bost lanbide-profilek biltzen dituzte EAEn erregistratutako lan-eskaintza gehienak. 4 eskaintzeko 1 zerbitzuetako lanbide-profilerako erregistratu da (288 eskaintza); ez-kualifikatuen lanbide-profilak jarraitzen dio (243 eskaintza). Industriako, laguntzarako teknikari eta zientzia teknikarien lanbide-profilek ere pisu nabarmena dute erregistratutako lan-eskaintzetan; 191, 172 eta 171 eskaintza erregistratu dira, hurrenez- hurren. Lan-eskaintza gutxien erregistratu diren profilak zuzendarienak izan dira (3).

Aurreko hilabeteko datuekin alderatuz, hazi diren eskaintza bakarrak, ez-kualifikatuen profilekoak (+16) eta lehen-sektorekoak izan dira (+1). Gehien murriztu diren eskaintzak, bai balore absolutuetan eta baita erlatiboetan ere, industriakoak izan dira (%35,5,105 eskaintza gutxiago).

Urte arteko saldoari erreparatuz, gehien hazi direnak, bai balore absolutuetan eta baita erlatiboetan ere, ez-kualifikatuena izan da (77 eskaintza gehiago, %46,4ko hazkundea). Gehien murriztu diren eskaintzak industriakoak izan dira (%19,4ko murrizketa, 46 eskaintza gutxiago).

• KONTRATU MOTA

Erregistratutako lan-eskaintzen % 13,3k kontratu mugagabea eskaini dute; % 86,3k, aldi baterakoa, eta, gainontzeko % 0,4k, merkataritzakoa. Balio absolutuetan, kontratu mugagabeen eskaintzak 171 izan dira, 19 gehiago aurreko hilabetearekin alderatuz, % 12,5eko hazkundea. Aldi baterako kontratuak eskaini dituzten eskaintzak 329 gutxiago erregistratu dira: 1.112 eskaintza izan dira guztira. Kopuru erlatiboetan murrizketa % 22,8koa izan da. Azkenik, merkataritzako kontratuen eskaintzak 2019ko uztailean 5 izan dira, aurreko hilean baino 1 gehiago.



Urte arteko saldoari dagokionez, kontratu mugagabeen eskaintzak 23an hazi dira (%15,5eko hazkundea), aldi baterako kontratuen eskaintzak % 8,7 hazi dira, 89 eskaintza gehiago eta merkataritzako kontratuen eskaintza 3 gutxiagokoa izan da.

• ESKATUTAKO ESPERIENTZIA-DENBORA

2019ko uztailean erregistratutako lan-eskaintzen %73,1ak (941 eskaintza) 0 tik 6 hilabetera arteko esperientzia minimoa eskatzen dute. Eskaintzen % 16,2k (209) esperientzia-denbora luzeagoa eskatzen du, 6 hiletik 12ra artekoa. Portzentaje txikiagoak dituzte esperientzia-denbora luzeagoak eskatzen dituzten eskaintzek; 3 urtetik 5 urtera eskatzen dutenek eta 5 urtetik gorako esperientzia eskatzen dutenek, hain zuzen; % 1,8ko eta % 0,6ko pisua dute, hurrenez- hurren (24 eta 8 eskaintza guztira).



Hilabete arteko eboluzioari dagokionez, eskaintza mota guztiak murriztu dira, 5 urtetik gorako esperientzia eskatzen dutenak izan ezik, hauetan 3 eskaintza gehiago izan dira. Gehien murriztu diren eskaintzak, bai balore absolutuetan eta baita balore erlatiboetan, 0 eta 6 hilabete arteko esperientzia eskatzen dutenak izan dira (248 eskaintza gutxiago, % 20,9ko murrizketa).

Urte arteko eboluzioari dagokionez, bilakaera ondorengoa izan da: gehien hazi diren eskaintzak 6 hilabete baino gutxiagoko esperientzia eskatzen dutenak izan dira (113 eskaintza gehiago, %13,7ko hazkundea). Gehien murriztu diren eskaintza motak 1 eta 3 urte arteko esperientzia eskatzen dutenak izan dira (34 eskaintza gutxiago, %25,3ko murrizketa).

• LANALDI MOTA

Analisiarekin hasi baino lehen, esan beharra dago ez dutela erregistratutako eskaintza guztiek zehazten zein izango den lanaldi mota: soilik eskaintzen % 16,8k zehazten du datu hori (1.288 eskaintzetatik 217). 217 eskaintza horietatik, 166 lanaldi osoa eskaintzen dutenak izan dira, eta, gainontzeko 51ak lanaldi partziala eskaini dute.



Eboluzioari dagokionez, lanaldi osoko eskaintzak 118 gutxiago izan dira ekainarekin alderatuz, hau da, % 41,5 murriztu dira. Lanaldi partzialeko eskaintzak 3 gutxiago izan dira; murrizketa erlatiboa % 5,6koa izan da.

Aurreko urteko hilabete berberarekin alderatuz, eboluzioa hurrengoa da: lanaldi osoko eskaintzak 20 gutxiago izan dira (% 10,8ko murrizketa), eta lanaldi partzialeko 13 eskaintza gutxiago erregistratu da (% 20,3ko murrizketa). Aztertutako hiru hilabeteetan (2018ko uztaila, 2019ko ekaina eta 2019ko uztaila), lanaldi partzialeko eskaintzen pisu handiena 2018ko uztailean izan zen, % 25,6ko pisuarekin, lanaldi mota zehazten duten eskaintza guztien artean.

• ALDI BATERAKO LANERAKO ENPRESAK (ABLE)

Erregistratutako eskaintzen % 1 izan dira ABLEen bitartez kudeatu direnak, 1.288 eskaintzetatik 13 soilik. Aurreko hilean 19 izan ziren.

• ESKATUTAKO PRESTAKUNTZA MAILA

Adierazle honi buruzko datuak ere ez dira beti zehazten lan-eskaintzak erregistratzeko orduan. Eskaintzen % 89,5ek ez du zehazten zein den eskatutako prestakuntza maila minimoa: 1.288 eskaintzetatik 135ek soilik zehaztu dute.



135 eskaintza horietatik, 60k LHko prestakuntza maila eskatu dute (% 44,4k); gehien eskatu den prestakuntza maila izan da. Horiei jarraituz, unibertsitateko ikasketak eskatzen dituzten eskaintzak daude, 39 eskaintza (% 28,9). Ondoren, oinarrizko ikasketak eskatzen dituztenak daude 27 eskaintzekin (% 20). Azkenik, batxilergoko ikasketak eskatzen dutenak daude, erregistratutako 9 eskaintzekin, eta % 6,7ko pisua dute erregistratzeko orduan adierazle hau zehaztu duten 135 eskaintzen artean.

Eboluzioari dagokionez, esan beharra dago uztailean lan-eskaintza gutxiagotan zehaztu dela prestakuntza maila, ekainean baino (135 eskaintza uztailean; 179 ekainean), eta hauen pisua eskaintza guztien artean apur bat txikiagoa izan da (% 10,5 uztailean eta % 11,2 ekainean). Hilabete arteko erlazioari erreparatuz, eskaintza mota guztiak gutxitu dira unibertsitatekoak izan ezik; ikasketa maila hau eskatzen duten lan-eskaintzak 2 gehiago dira. LHko ikasketak eskatzen dituztenak izan dira gehien murriztu direnak balio absolutuetan (39 eskaintza gutxiago, % 39,4ko murrizketa); balio erlatibotan, batxilergoko ikasketak eskatzen dituztenak izan dira gehien murriztu direnak (%40ko murrizketa, 6 eskaintza gutxiago).

2018ko uztailarekin alderatuz,hazi diren eskaintzak mota bakarrak batxilergokoak izan dira (4 eskaintza gehiago). Gehien murriztu direnak, balore absolutuetan, unibertsitate ikasketak eskatzen dituztenak izan dira (11 eskaintza gutxiago, %22ko murrizketa); balore erlatiboetan, aldiz, oinarrizko ikasketak eskatzen dituztenak izan dira gehien murriztu direnak (-10, -%27).

- **ESKAINTZAREN JARDUERA**

EAEko enplegu-bulegoetan erregistratutako lan-eskaintzen kopuruari dagokionez, gehien nabarmentzen diren jarduerak merkataritza, manufaktura-industria eta ostalaritzakoak dira, eskaintzen % 14,6ko, % 12,7ko, % 12,1eko pisuarekin, hurrenez- hurren (188, 163, eta 156 lan-eskaintza 1.288 eskaintza guztietatik, hurrenez hurren).

Aurreko hilari erreparatuz gero, gehien hazi diren eskaintza motak, ostalaritzakoak izan dira (30 eskaintza gehiago, % 23,8ko hazkundea). Eboluzio negatiboa izan dutenen artean industriakoak izan dira gehien murriztu direnak (% 40,7ko murrizketa, 112 eskaintza gutxiago).

Urte arteko saldoari erreparatuz, 4 eskaintzek egin dute behera; administrazio-jarduerek (-24), industriak (-8), finantza jarduerek (-2) eta etxekoek (-1). Bestalde, ostalaritzakoak izan dira gehien hazi direnak balore absolutuetan (41 eskaintza gehiago, % 35,6ko hazkundea); balore erlatiboetan, aldiz, informazio eta komunikazio eskaintzak izan dira gehien hazi direnak (%58,8ko hazkundea, 10 eskaintza gehiago).


Eskaintzaren jarduera
Etxeak langile enplegatzaile gisa
Beste zerbitzuak
Artistikoak, jolaserakoak eta entretenimenduzkoak
Osasun jarduerak eta gizarte-zerbitzuak
Hezkuntza
Administrazio publikoa
Jarduera administratiboak
Profesionalak, zientifiko eta teknikoak
Higiezinen arloko jarduerak
Finantza eta aseguru jarduerak
Informazioa eta komunikazioa
Ostalaritza
Garraio eta biltegiratzea
Handizkako eta txikizkako merkataritza; konponketa
Eraikuntza
Ur-horniketa, handakinen kudeaketa
Argindar, gas, lurrun horniketa
Manufaktura industriak
Erauzketa industriak
Nekazaritza, abeltzaintza, basogintza, arrantza
0,00%
2,00%
4,00%
6,00%
8,00%
10,00%
12,00%
14,00%
16,00%